

1.IDEIA

Gure asmakizuna zerbitzu bat da, aplikazio baten bitartez kirolariak laguntzen dituena. Horrela, bezeroek kirolean ematen duten denbora guztiz probetxuzkoa izango da. Aplikazio hau deskargatuta daukaten pertsonak eskuragarri izango dituzten baliabideak ugariak izango dira. Hala nola, gorputzeko muskulo bakoitzeko ariketak zaluko dituena, leku guztietako rutak erakutsiko dituena, mendietara edo beste herrietara joateko.

Ariketei dagokionez, mota askotakoak aurkituko dituzu gihar bakoitzeko. Gainera, honi buruzko gomendapenak eta akats ohikoak aurkitu ahal izango dituzu, entrenamendua hobea izan dadin. Azkenik, nahi izanez gero, ariketa bat gustoko baldin baduzu eta ez badakizu zer gehiago egin zure entrenamenduan; app-a bateragarriak diren beste ariketak erakutsiko ditu, ahalik eta entrenamendu hobereana egin ahal izateko.

Amaitzeko, aplikazio honek gimnasio bakoitzeko tabla klasifikatorio bat izango du, honetan pertsona bakoitzeko entrenamendu ordu kopurua, egindako pisu maximoa eta gainerako ekintzak agertuko dira. Honekin, bezeroen arteko errendimendua alderatuko da, urtean zehar izan duen progresioa ikusi dezan.

